

Aramaion, 2010eko maiatzaren 28an

Urrutia, Andres euskaltzainburua,
Kintana, Xabier idazkaria,
Arkotxa, Aurelia euskaltzainburuordea,
Lizundia, Jose Luis diruzaina,
Sagarna, Andoni Iker sailburua
Iñigo, Andres Jagon sailburua,
Aleman, Sagrario,
Charriton, Pierre,
Goenaga, Patxi,
Haritschelhar, Jean,
Lakarra, Joseba,
Larre, Emile,
Peillen, Txomin,
Salaberri, Patxi,
Salaburu, Pello,
Toledo, Ana,
Torrealdai, Joan Mari,
Uribarren, Patxi eta
Videgain, Xarles euskaltzainak.

Pello Telleria idazkariordea, eta, zegozkien gaitan, Patxi Galé, Alfonso Mujika, Antton Gurrutxaga eta Mikel Gorrotxategi jaunak.

Ezin etorriak eta ahalak:

Adolfo Arejitak, ahala J. L. Lizundiari;
Jean-Louis Davantek, ahala Txomin Peilleni; Joxe Irazu «Bernardo Atxag»k, ahala A. Urrutiari; Miren Lourdes Oñederrak, ahala A. Arkotxari; Patxi Zabaletak, ahala A. Iñigori; Mikel Zalbidek, ahala A. Urrutiari; A. Urrutiak, ahala, egon ez den tartean, Xabier Kintanari.

Batzarra goizeko 10:15ean hasi da Aramaioko Udalaren batzar aretoan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Euskaltzainburuak beranduago etorri behar izanez, etorririko euskaltzainak agurtu ondoren, Idazkariak eman dio hasiera batzarrari.

1.- Alkatearen agurra. Asier Agirre jaunak, Aramaioko alkateak, batzar aretora etorrira, bertan bilduriko euskaltzainak agurtu eta ongi etorria

eman die. Xabier Kintana idazkariak, Euskaltzaindiaren izenean, alkateari eskainitako harrera ona eskertu dio.

2. Aurreko akta onartzea. Ez da oharririk jaso eta, beraz, aurreko batzarraren akta ontzat eman da.

3. Onomastika. Euskal Herriko ibaien izenak: 1. zerrenda aurkeztea.

A. Iñigok egin du 373 ibaien izen-proposamenaren aurkezpen laburra. Ondoren, hitza Mikel Gorrotxategi eta P. Galeri eman die. M. Gorrotxategik, aurkezturiko lanaren prozedura azaldu du. P. Galek pantailan ibai nagusien mapa erakutsi du, hots, Euskal Herriko hidronimia nagusia. Hor, zeintzuk ibai kontuan hartu eta zeintzuk baztertu diren argitu du. Zerrendak atalka prestatu direla azaldu du. Alde batetik, Bizkaiko itsasora doazenak, 3 zatitan, eta ondoren Mediterraneo alderakoak. Ibaien ondoko herri batzuen izenak ere jarri dira mapetan, kokatzeko lagungarri.

P. Goenagak ibai baten izenaz galdetu du (*Goiolako* deritzonaz). P. Galek eta J.L. Lizundiak, erantzutean, era bitxi horretako ibai-izen mugagabeen formaz argitasunak eman dizkiote.

P. Uribarrenek Bizkaiko Diputazioak argitaraturiko ibaien arrantza-mapa kontuan hartu ote den galdetu du, eta P. Galek baietz erantzun dio. P. Goenagak *-ko* amaieradun ibai-izenak bertakoek nola darabiltzaten jakin nahi izan du. P. Galek, bilduriko datuen arabera erantzun dio. J. M. Torrealdaik erreka-stoen izenei emandako tratamenduaz galde egin dio. P. Galek, ordea, oraingoan hidronimo nagusiak besterik ez direla ikertu azaldu du, dagoen eskariari erantzuteko.

Oharrak egiteko, Andres Iñigok ekainaren 15era arteko epea dagoela gogorazi du.

4. Exonomastika. Europako geografia fisikoa. Mendi eta uharte izenen azken atala aurkeztea.

Aurkezpenean, J. L. Lizundiak mendi horietako batzuen garrantzi geografikoa eta historikoa nabarmendu du, eta zenbaitzuen izena, bertako hizkuntza batzuetan ez dela ofiziala gogorazi (aragoierazkoak, adibidez). Ondoren hitza Alfontso Mujikari eman dio, eta berorrek aukeraren arrazoiak azaldu ditu: Europako mendi handienak eta historiko-mitologikoak, adibidez. Kasu konkretu batzuen berezitasunak ere azpimarratu ditu.

J. Haritschelharrek: *Isla de los faisanes* delakoaz galdetu du. A. Mujikak gogoratu du oraingo zerrenda hau Exonomastikari dagokiola da, eta ez Euskal He-

rrikoari. P. Charritonek eta A. Arkotxak *Monte Perdido*-ren izenaz galdetu dute. Erantzuna J. L. Lizundiak eman die: kokaera, inguru hartako hizkuntza, eta beste xehetasun batzuk. Tx. Peillenek *Quirinal*-i buruzko oharra egin du. Entzun ondoren, J. L. Lizundiak ohar hori idatziz bidaltzeko eskatu dio. Era berean, *Balaitus* deritzonaz zenbait azalpen eman du J. L. Lizundiak, ingeles, frantses, katalan, aragoiera eta okzitanierazko erak kontuan harturik. Oharrak bidaltzeko epea: ekainaren 15ra arte.

5. Zientzia eta Teknika Hiztegia Biltzeko egitasmoari buruzko azalpena.

X. Kintanak arlo horietako euskal lexikoa bildu eta moldatzeko egitasmo honen historia laburra egin du. Horretaz izan diren saioak, usteak eta aurreiritziak gogorarazi ditu, eta euskara zientzia eta kulturarako gai izan zitezkeen ala ez eztabaidatzen zuten jarrerak ere. Euskara irakaskuntza ofizialean sartu eta gure hizkuntza ofiziala bilakatu denetik egindako pausoak eta lorpenak aipatu ditu, eta orain arte zientzia eta teknika arloan landuriko lexikografiaren lagin zabal bat Euskaltzaindiaren hiztegian txertatzeko premia ere azpimarratu du. Ondoren, Euskaltzaindian helburu horrekin antolaturiko batzordeak orain arte erabiliriko prozedura eta jada egindako urratsak azaldu ditu. Ondorioz, aurten lehenbiziko zerrenda, Matematikari dagokiona, prest izango dela iragarri du.

Ondoren, hitza Antton Gurrutxagari eman eta beronek, Zientzia eta Teknika Hiztegia biltzeko helburuaz, Euskaltzaindiak onarturiko egitasmoaren oinarriak, abiapuntua, helburuak, hedadura eta metodologia aztertu ditu, ondoren, urrats nagusiak eta baliabideak (testuak eta materialak) jorratzeko. Espezialitate-arloetako adituen jakintzaz baliatzeko, Oinarrizko Hezkuntza, Batxilergo, Unibertsitate eta ikertzaile, profesional eta teknikariek lan egin beharra aurreikusi da, ondoren, Hiztegi Batuko espezialitate-arloko hiztegi unitateen bilketari ekiteko. Hor Hiztegi Batuko bertsioak (*a-f* argitaratua (EArau), eta *g-z* EArau + HBLren proposamen berriak hartu dira kontuan.

Ondoren Unitateak erauzteko irizpideak azaldu ditu: Hiztegi Batuan arlo-marka duten sarrera-azpisarrerak, batetik, eta, bestetik, azpisarrerak eta arlo-markarik izan gabe ere, espezialitate-arloko erabilera finkatzen duten sarrera-azpisarrerak. Jada Hiztegi Batuan finkaturiko lexikoa alde batera utzirik, arlokako banaketa horretan zenbana hitz sartu, izan da galdera. Oinarriz, batez beste, 200na hitz sartzea li-tzateke helburua, zientzia eta teknologia arloak nolabaiteko orekan egoteko.

Bere hitzak paperean inprimaturiko azalpen, eskema eta etsenpluekin argitu ditu A. Gurrutxagak.

Ondoren, P. Salaberrik terminologia berezi horretako arazo batzuk aipatu eta arlo ezberdinei dagozkiekeen hitzen kasua mahairatu du: *erro* adibidez (Bot. eta Mat.), horrek desoreka eta nahasbidea sor lezake eta. A. Gurrutzagak, horretarako, zerrenda argitaratu baino lehenago, arloak ongi egokitu behar direla azaldu du. A. Sagarnak Euskaltzaindiaren beste hiztegiekin koordinazioa egin beharko dela esan du. P. Salaburuk, berriz, erabili beharreko corpusen berri eskatu du. Baina, zoritarrez, horrenbesteraio sosik ez aurrekonturik ez dagoela erantzun zaio.

6. Hiztegi Batua (2. itzulua) batzorde ahaldunduaren proposamena aurkeztea.

A. Sagarnak aurkeztu eta irakurri du, eta orain arte jorraturiko hitz eztabaidagarriak idatziz banatu. Abisu orokor gisa, eta prozedura moduan, lehenago oharra egindakoek ezingo dute ohar berririk egin. Zuzenketak bidaltzeko epea ekainaren 15era arte izanen da.

7. 2010.eko aurrekontuak

Euskaltzainburua ekonomi egoera larriaz mintzatu da. Une honetan hitzarmen berria negoziatzen ari da, pertsonalaren egonkortasuna segurtatu eta beherapenak ahalik eta gutxien egin daitezten. 2010eko aurrekontuak banatu dira eta J. L. Lizundiak azaldu ditu, bai eta horien gorabehera nagusi eta aipagarrienak nabarmendu ere.

Litekeen irtenbide bat Fundazioa martxan jartzea litzateke. Horretaz, A. Urrutiak RAE-ren sistema berria azaldu du. Espainiako Akademiak ez du fundazioaren dirua administratzen, baina bai, programa eta premien arabera, behar duena hari eskatzen. Nolanahi ere den, murrizketak egin beharko dira, etsenplua euskaltzainen artean emanez. Beharrezkoa izango da urtero auditoriak egitea. Goenagak galdetu du ea euskaltzainei aurrekontuez zer eskatzen zaien: onartzea ala zuzenketak eskaintzea. Euskaltzainburuak Osoko Batzarrari 2010eko aurrekontuen behin-behineko onarpena eskatu dio, bai eta, bere kasuan, azken orduko zuzenketa edo egokitzapenak egin behar izanez gero, Zuzendaritzari horretarako baimena ematea ere. P. Goenagak galdetu du ea proiektu guztiak ziurtzat ematen diren eta fundazioko diruak zertan diren. Azalpena eman ondoren, euskaltzainburuaren eskariak ontzat eman dira.

8. Kudeatzaile berriaren aurkezpena. Euskaltzainburuak Joseba Zabaleta Zendagorta jauna, kudeatzaile berria, aurkeztu du, 90 kandidateuren artean lehiaketaz hautetsia. Bere merezimendu nabarmenez gainera, curriculumak euskaraz

bidali duen bakarra izan dela azpimarratu du Euskaltzainburuak, eta goi mailako zuzendaritzako hitzarmena egingo zaiola Berretsi egin da Kudeatzailearen hautaketa. J. Zabaletak agur- eta aurkezpen-hitz batzuk esan ditu, bere asmoak adierazteko.

9. Esku artekoak

9.1. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren eskaria. Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak «Euskarazko literatura itzulpena» modalitaterako saria antolatua du. Horren epaimahairako, Euskaltzaindiari ordezkari bat izenda dezala eskatu dio. Zuzendaritzak, maiatzaren 14an Miren Lourdes Oñederra izendatzea proposatu zuen, eta interesatuak, hala jakinarazi ondoren, onetsi egin du.

9.2. Kultura Ministerioaren eskaria, hizkuntza ofizialetako itzulpena dela eta. Espainiako egileek 2010ean egindako lanak Espainiako hizkuntza ofizialertara itzuli eta argitaratzeari begira, balorazio-batzorde bat sortu dute. Kultura Ministerioak Euskaltzaindiari bere ordezkaria izendatzea eskatu dio. Ordezkari-tza hori Adolfo Arejitari eskaintzea erabaki du Zuzendaritzak, bai eta berak onartu ere.

9.3. Patxi Baztarrikaren *Babeli gorazarre* liburuaren aurkezpena. Ekainaren 2an Patxi Baztarrikaren *Babeli gorazarre* liburuaren aurkezpena egingo da Euskaltzaindiaren egoitzan arratseko 7,30etan. Egileakin batera, Joan Bernat jauna –Kataluniako Hizkuntza Politikarako idazkaria– mintzatuko da. Aurkezpenera joan nahi duenak gonbit-txartelean adierazita dauden telefono edo posta elektronikoan jakinarazi beharko du.

9.4. *Haur Besoetakoa*-ren irakurketa. Ekainaren 16an, Bilbo Zaharra Euskaltegiak, azken urteotan bezala, egun osoan zehar liburu baten irakurketa antolatu du Arriaga antzokian. Aurten Jon Miranderen *Haur besoetakoa* irakurriko da. Euskaltzainak gonbidaturik daude harako, arratsaldeko 17:30 – 18:30 artean. Horretan parte hartu nahi duenak ekainaren 1erako abisatu beharko du.

9.5. Liburu berria aurkeztu. Ekainaren 28an, Baionan, Euskaltzaindiak *Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian / L'enseignement du basque aux adultes natifs et non natifs en Pays Basque Nord*. deritzon liburu berria aurkeztuko duela iragarri da.

9.6. Erakusketa Aramaion. Aramaioko plazako *Sastiña* elizatzhoan Euskaltzaindiak Pirinioetako Hizkuntzei eta Aramaioko idazleei buruzko erakusketa jarri du maiatzean. Beraz, nahi dutenek bisita dezakete.

9.7. Mugarik Gabeko Telebistaren aldeko sinadurak. Andres Iñigok jakinarazi duenez, Mugarik Gabeko Telebistaren aldeko sinadurak biltzeko kanpainak arrakasta handia izan du herrialde horretako Euskaltzaindiaren ordezkartzan, batez ere. Guztira 13.416 sinadura bildu dira, eta antolatzaileei horrela helaraziko zaizkie. Euskaltzaindiaren izenean A. Urrutiak eskerrak eman dizkio A. Iñigori.

9.8. Hurrengo batzarra. Euskaltzaindiaren hurrengo batzarra ekainaren 25ean izango da Bilbon, goizeko 10:00etan.

Batzarra 14:15ean amaitu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria

Ageriko bilkura

Aramaion, 2010eko maiatzaren 28an

Gaur, maiatzak 28, egin da Patxi Uribarren Leturiaga euskaltzainaren sarrera-hitzaldia Aramaion, Ibarra elizateko San Martin elizan, arratsaldeko 18:00etan hasita.

Bildu direnak:

- Euskaltzain osoak: Andres Urrutia, euskaltzainburua; Aurelia Arkotxa, buruordea; Xabier Kintana, idazkaria; Jose Luis Lizundia, diruzaina; Andoni Sagarna, Iker sailburua; Andres Iñigo, Jagon sailburua; Jean Haritschelhar, euskaltzainburu ohia; Sagrario Aleman, Adolfo Arejita, Patxi Goenaga, Joseba Andoni Lakarra, Emile Larre, Beñat Oihartzabal, Miren Lourdes Oñederra, Txomin Peillen, Patxi Salaberri, Pello Salaburu, Ana Toledo, Joan Mari Torrealdai, Patxi Uribarren, Xarles Videgain, Piarres Xarritton, Patxi Zabaleta eta Mikel Zalbide. Ezin etorria adierazi dute Jose Antonio Arana Martijak, Miren Azkaratek, Jean-Louis Davantek, Jose Irazu «Bernardo Atxaga»k eta Ibon Sarasolak.
- Ohorezko euskaltzainak: Gorka Aulestia, Luis Baraiazarra, Joseba Intxausti eta Jose Antonio Retolaza. Ezin etorria adierazi du Jose Mari Iriondok.
- Euskaltzain urgazleak: Dorleta Alberdi, Kepa Altonaga, Jon Aurre, Xipri Arbelbide, Gotzon Aurrekoetxea, Ricardo Badiola, Jose Ramon Etxebarria, Patxi Galé, Pruden Gartzia, Juan Luis Goikoetxea, Jazinto Iturbe, Manu Ruiz Urres-tarazu eta Pello Telleria. Ezin etorria adierazi dutenak: Jose Mari Etxebarria, Jesus Maria Makatzaga eta Xabier Mendiguren.
- Batzordekideak: Kasildo Alkorta, Roberto Gonzalez de Viñaspre, Patxi Juaristi eta Manu Ormazabal. Ezin etorria adierazi du Elena Martinez de Madinak.
- Euskaltzaindikoko langileak: Lutxi Alberdi, Amaia Okariz eta Itziar Rekalde.

Xabier Kintana idazkariak, Barne Erregeletako 64.8 eta 64.9 ataletan esaten dena betez, ekitaldi akademikoaren nondik-norakoa azaldu du, eta ekitaldian zehar kasuan kasuko atalari bidea eman.

Asier Agirre alkatearen ongietorriarekin eta Andres Urrutia euskaltzainburuaren agurrekin hasiera eman zaio gaurko ekitaldiari.

Ondoren, Sagrario Aleman eta Miren Lourdes Oñederra euskaltzainek lagunduta, batzar aretora sartu da Patxi Uribarren Leturiaga *Zirelako gara, garelako izango dira* izenburuko sarrera-hitzaldia irakurtzera. Erantzuna Jose Luis Lizundia euskaltzainak eman dio, *Ganbarnuetatik Araba euskaldunera* izeneko hitzaldiarekin.

Patxi Uribarren: Zirelako gara, garelako izango dira

Ohitura den bezala, berak daraman domina jantzi zuen aurreko euskaltzaina, Henrike Knörr, gogoan izan du Patxi Uribarrenek: «*Bera izan dugu azken mende erdi honetan Arabako euskararen lekukorik eta eragilerik nagusia.*»

Euskararen transmisioari buruzko gogoeta egitea helburu zuela, euskarak Aramaion egin duen ibilbideaz mintzatu da Patxi Uribarren bere hitzaldian.

Aramaio Euskal Herriaren eta Arabaren mapan kokatu ostean, bertan egiten den euskararen berezitasun nagusiak aipatu eta XX. mendeko une historiko batzuk gogoan izan ditu euskaltzainak: gerra aurreko egoera: «*euskara izan da mendeetan zehar bertako berezko hizkuntza nagusia, bakarra ez esatearren*»; gerrak ekarri zuena: «*Gerrak eta ondoko errepresio frankistak goitik behera aldatu zuten egoera*»; eta gerra ondoko giroa: «*Euskarak izugarritzko zartada jaso zuen. Bat-batean moztu edo urkatu zuten ahalegin handiak eginez berpizten ari zen euskararen aldeko mugimendu osoa. Euskararen landa berdea goitik behera urratu zuten, basamortu gorri bihurtuz. Euskaraz hitz egitea bera ere, hainbat kasutan delitu bihurtzeraino. Sarritan –gaineratu du– ahaztu egiten da guztia, gerra osteko hainbat euskaldunek seme-alabak euskaraz hezteko nahiz euskarari eusteko egin zituzten ahaleginak gutxietsiz edota behar den adina ez baloratuz. Euskarak mespretxu ugari eta pertsekuzio gogorra jasan zituen. Beraz, ez dezagun ahaztu, euskara gaur egungo egoera larrira, neurri handi batean, gerra ondoko errepresio horren ondorioz etorri dela*».

Hala eta guztiz ere, Patxi Uribarrenek esan duenez, 1940tik 1960ra, Aramaion «*euskarak, oztopoak oztopo, oso indartsu jarraitzen zuen Ibarren bertan ere, irakaskuntza eta administrazioa gaztelania hutsean izan arren*».

60ko hamarkadan, baina, aldaketa sakonak gertatu ziren Aramaion: «*Baserri bizitzaren gainbeheraren ondorioz, zeharo aldatu zen bertako biztanleen banaketa*». 1969an, Santutxuko gau-eskoletan jardunean zebilela, eliz ikasketak amaitu eta apaiz eginda gero, Uribarren herrira itzuli zen eta, aitortu duenez, «*bihozkada gogorra jaso nuen, Ibarako kaleetan erdara nagusitzen ari zela ikustean*».

Egoera aldatze aldera, herriko talde bat lanean hasi zen. Hitzaldiak antolatu zituzten, alfabetatzeko eta euskara tituluak ateratzeko ikastaroak egin... Hala ere, datu zehatzei erreparatu gero, ondorio argia atera zuen Uribarrenek: «*Abiadura handiz atzeraka zihoan euskara*». Egoera horri aurre egiteko neurri batzuk martxan jarri ziren. Aldi berean, «*diktaduraren azken urteetan, hainbat aldaketa politiko eta linguistiko izan genituen Euskal Herrian*». Kooperatiben mugimendua eta ikastolak aipatu ditu Uribarrenek, baita «*Pacem in terris*» entziklika ere, «*bete-beteen aldarrikatzen zuelako hizkuntza propioa izateko gure herriak duen eskubidea*». Azkenik, «*1970eko hamarkadan euskararen alde eman ziren egintza ugariak hainbatean hobetu zuten Aramaio euskararen egoera*».

1980tik aurrera, Uribarren esanetan, «*euskarari lekua egin zitzaion irakaskuntza publikoan, administrazioan eta beste hainbat lekutan. Gertakari horiek eragina izan zuten Aramaion ere, hainbatean euskararen aldeko joerak indartuz*».

Azken ikerketa linguistikoaren datuek erakusten duten bezala, erronka berriak ditugu euskaldunok. Teknologia berriek eta globalizazioak iraultza ekarri dute, Patxi Uribarren esanetan. Bizimoduak ere aldatu egin dira, asmo onak ezerezean gertzen dira: «*Euskaldunok euskaraz bizitzea ahalbidetuko digun gizartea behar dugu. Oraindik ez digute aitortzen euskaldunoi Euskal Herrian euskaraz bizitzeko eskubidea. Bizitzako hainbat unetan eta tokitan erdara erabiltzera behartzen gaituzte. Ez da oraingo egoera larri hau aldatzeko benetako urratsik ematen. Txarrago oraindik, azken aldian, sarriegi Euskal Herrian zehar kontrako egintzak ikusten ari gara*».

Bada Aramaion konponbiderako itxaropenik, Uribarrenek adierazi bezala. Herria UEMAn da, berton euskararen ezagutza-maila oso handia da, euskararen alde lan egiten duten elkarteak badira..., baina konpromisoak behar dira, eta inguruko udal ordezkariak zuzendu zaie, dei eginez «*euskararen aldeko ahaleginetan batera jardutera, gure herriaren etorkizun euskalduna jokoan dugu eta. Zuen taldeetako 10 pertsonak beti euskara erabiltzeko konpromisoa hartu ezkerro, iraultza gertatuko litzateke herrian nahiz etxeetan*».

Azkenik, Euskal Herri osoan euskararen alde diharduten erakunde eta pertsonen lana eskertu eta euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatu du: «*Ez dut uste*

mundu zabalean, hizkuntzaren alde Euskal Herriak egin duen adinako ahalegina egin duen herri asko izango denik. Euskaldunok Euskal Herri euskalduna nahi dugula erakutsi dugu era askotara, behin eta berriro Euskal Herri osoan euskaraz bizitzeko eskubidea aldarrikatuz. Argi adierazi dugu aurreko belaunaldietatik jaso dugun euskara etorkizuneko belaunaldiei eskaini nahi diegula».

Jose Luis Lizundia: Ganbarruetatik Araba euskaldunera

Bere erantzunaren hasieran, Jose Luis Lizundiak euskaltzain oso berriaren ezaugarri pertsonal zein profesionalak nabarmendu ditu, haren biografiaren punturik adierazgarrienak gogora ekarriz, besteak beste, karmeldarretan egindako bidea, mundu hark hurbildu baitzuen behin betiko euskarara: «*Euskal munduan sartzea, egoera anormala izan arren, normala suertatu zitzaion Patxiri Aita Santi Onaindia, Aita Lino Akesolo, Aita Migel Mari (Markinako bertso-egunak antolatzen zituena), Aita Luki, Aita Fidel, Aita Martin eta beste hainbat karmeldar idazle famatu ezagutzean*».

Lizundiak Uribarrenek 60ko hamarkadan gauzatu zuen lanaren garrantziaz ohar-tarazi ditu bertan bildutakoak, garai hartan mezak euskaraz prestatzeko lehenengo-eta-erikoa izan baitzen, edota alfabetatze-euskalduntzean buru-belarri murgildu zelako. Halaber, ez du ahaztu nahi izan Patxi Uribarren Bizkaiko Foru Aldundiaren lehen itzultzailea izan zela.

Akademiaren baitan harreman zuzena izan du Uribarrenekin: «*Euskaltzaindiarekiko atxikimendu sendoa aspaldikoa dela berma dezaket, hasi 60ko hamarkadaren bukaeran Erribera kaleko egoitza zaharretik eta Plaza BARRIKO gaur egun artio. Bere biobibliografiari erreparatzen badiozue, argi ikusten da erakunde akademikoarekin izan duen partaidetza leial eta oparoa.*»

Berbaldiaren bigarren partean, berriz, Lizundiak Patxi Uribarrenen euskalkiaren eremua izan du mintzagai nagusi, «*Araban euskaldungoaren berezko eremua Aramaioko eremura mugatzen den topikoa gezurtatzeko*». Horretarako, hamaika datu eta testigantza aipatu ditu, horietarik asko berak bilduak edota lekukotuak, Zigoititik hasi eta Aguraineraino.

Gerra ostean Legution euskararen kontra izandako zapalkuntza-prozesua, Urbinan duela hamar urtera arte bizi ziren azken euskaldunak, Ubarrundiako azterketa toponimikoa azaleratzen ari den datuak, XIX. mendean, Agurain Barrutiko Auzi-

tegiak euskaldunentzat interpretari bat zuela. Horiek guztiek frogatzen dute Arabak ere euskara duela hizkuntza propio.

Bere esanetan, «*gure hizkuntza propioaren geolinguistika ikuspegitik Arabaren euskal eremu garaikidea ez da hain txikia, are gutxiago, topikoei eta ez ezagutzeari jarraiki Aramaioko Gainbarrura ezin da mugatu. Askoz zabalagoa da edota izan da azken mendeen*».

Etorkizunera begira, errealitate hori aintzat hartuta, euskararen normalizazioaren sustapena Euskaltzaindiaren eginkizuna ere badela uste du, eta Patxi Uribarrenen ekarpena ezinbestekoa izango da aurrerantzean ere.

Diploma ematea

Ondoren, Patxi Uribarrenek, Barne Erregelaren 64.8. atalean esaten dena betez, «Euskaltzaindiaren xede eta helburuei, eta euskaltzain oso izateari dagozkien eginkizunak zintzo eta leialki beteko dituela» agindu du. Andres Urrutia euskaltzainburuak euskaltzain osoa dela adierazten duten diploma eta domina eman dizkio. Euskaltzain guztiek, banan-banan hurbildurik, euskaltzain berria zoriondu dute.

Ekitaldi akademikoa amaitu denean, oroigarri eta opariak eman dizkiote Patxi Uribarreni:

Koruaren burua den Anton Errarteren zuzendaritzapean, Aramaioko Abesbatzak lau abesti hauek kantatu ditu: *Goizian argia hastian*, Etchaunena; *Kantuz*, Lesbordesena; *Txanton Piperrri*, Zapirainena. 4) *Gurea da*, Salaberrirena.

Aramaioko Udalaren izenean, Patxi Uribarrenen jaiotetxearen –*Uribarrenbekoa* baserriaren– erretratua, Idoia Elexpuruk egina.

Familiaren oparia: loba guztien izenean Ibabe Perez Uribarrenek aureskua dantzatu du eta oparia eskaini dio.

Aramaioko Euskara Elkartearen oparia: Xabier Herratek argizaiola eman dio, elkartearen izena gogora ekarriz, *Txirritola*.

Elizatik irten ondoren, *Lagun Artean* dantza taldeak hauek dantzatu ditu: *Txakolin*, *San Pettitt*, *Agurra* eta *Banakoa*.

Ekitaldia iluntzeko 19:45ean bukatu da.

Andres Urrutia,
euskaltzainburua

Xabier Kintana,
idazkaria